

Azkeneko igandea Urtean Zehar (B)

**JESU KRISTO GURE JAUNA,
DIREN GUZTIEN ERREGEA**

Festaburua

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Seme maitea, diren guztien Erregea,
gauza guztien oinarri eta buru ezarri zenuen;
egizu, izaki guztiek,
bekatuaren uztarritik askatuta,
beti eta beti Zu zerbitza zaitzatela eta goretsi.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Dn 7, 13-14

Haren agintea, betiereko agintea da.

Daniel Profetaren liburutik

Begira nengoela,
gizonaren semea zirudien bat ikusi nuen,
zeruetako hodeitan zetorrela.
Gizon zaharrarengana hurbildu zen,
eta haren aurrean aurkeztu.
Agintaritza, ospea eta erregetza eman zitzaizkion;
eta herri, herrialde eta hizkuntza guztiak
zerbitzari zituen.
Haren agintea, betiereko agintea da,
inoiz ere amaituko ez dena;
eta haren erregetzak
ez du azkenik izango.

ERANTZUN SALMOA: Sal 92, 1ab. 1cd-2. 5

R/. Errege da Jauna, jantzi da handikiro.

Errege da Jauna, jantzi da handikiro;
jantzi da Jauna, indarra du gerriko. R/.

Lurbira Berak jarri du sendo,
eta ez da kolokatuko.
Sendo dago betidanik zure aulkia,
Zu betidanik zara. R/.

Zure aitormenak oso sinesgarri dira:
zure etxeari santutasuna dagokio, Jauna,
gizaldien gizaldietan. R/.

II. IRAKURGAIA: Apk 1, 5-8

*Munduko erregeen nagusiak,
errege leinu eta Jaungoikoaren apaiz egin gaitu.*

Apokalipsis liburutik

Grazia zuei eta bakea, Jesu Kristo testigu zintzoen izenean, hilen arteko lehen semearen eta munduko erregeen nagusiaren izenean. Gu maite izan gaituenari eta, bere odolaz, gure bekatuetatik garbitu gaituenari, errege leinu eta Jaungoiko bere Aitaren apaiz egin gaituenari: aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Begira, badator hodeietan;

begi guztiek ikusiko dute,

baita Bera zulatu zutenek ere;

eta Harengatik negar egingo dute bularjoka,

lurreko herri guztiek. Bai. Amen.

Honela dio Jainko Jaunak: Ni naiz alfa eta omega; baden eta bazen eta badatorrena, Ahalguztiduna.

EBANJELIOA: Jn 18, 33b-37

Aleluia: Mk 11, 10

R/. Aleluia.

V/. Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena!

Bedeinkatua, gure aita Dabidengandik

datorren erreinua! R/.

Zeuk diozu; errege naiz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Pilatok honela esan zion Jesusi: «Zu judutarren errege al zara?» Jesusek erantzun: «Zeure buruz galdetzen al didazu hori, ala besteren batek esan dizu Niretzat?»

Pilatok: «Judutarra ote naiz, bada, ni? Zure herritarrek eta apaiz nagusiek ekarri zaituzte niregana; zer egin duzu?» Jesusek orduan: «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Mundu honetakoa balitz nire erregetza, nire zaintzaileek gogor egingo lukete, Ni judutarren esku geldo ez nendin. Nire erregetza, ordea, ez da hemengo».

Pilatok: «Errege zara, beraz?» Jesusek erantzun zion: «Zeuk diozu: errege naiz. Horretarako jaioa naiz, eta horretarako etorria mundura: egiari aitormen egiteko. Egiarena denak entzuten du nire hitza».

Oparigaien gainekoa

Gizakia Zurekin baketzen duen oparia eskainiz,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:

zure Semeak berak eman diezaiela herri guztiei
 batasuna eta bakea.
 Errege bizi baita.

Prefazioa

Jesu Kristo, diren guztien Errege

V/. Jauna zuekin.

R/. Eta zure espirituarekin.

V/. Gora bihotzak.

R/. Jaunagan dauzkagu.

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
 nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
 Jauna, Aita guztiz santu,
 Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Zure Seme bakarra, Jesu Kristo gure Jauna, poz olioiz gantzutuz,
 betiko apaiz eta diren guztien Errege sagaratu duzu,
 gurutzeko aldarean bere burua
 opari garbi eta baketzaile eskainiz,
 gure erospenaren misterioa betetzeko;

eta izaki guztiak bere menpeko eginik,
 Zuri, Jaun guztiz handi Horri, eskura emateko
 mugarik ez daukan betiko erreinua,
 egiaren eta biziaren erreinua,
 santutasun eta graziaren erreinua,
 zuzentasun, maitasun eta bakearen erreinua.

Horregatik, aingeru eta goiaingeruekin
 eta zeruko talde guztiekin,
 zure aintzari goratzarre hau
 beti eta beti [esaten] abesten diogu:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Betiereko biziaren ogia harturik, Jauna,
 Zuri deiez gaude:
 Kristo zeru-lurren Erregearen aginduak betetzea
 aintzagarri daukagunok
 irits dezagula
 Berarekin zeruetako erreinuan beti bizitzea.

Errege bizi baita.